

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

272/2016-B prozedura arruntera epatzea

Uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 49.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, epatu egiten da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian bideratutako administrazioarekiko auzi errekurtsora -272/2016-B prozedura arrunta-. Errekurtso hori estatuko abokatuak jarri zuen Armiñongo Udalak 2016ko urtarrilaren 29ko bilkuran hartutako erabaki baten aurka (seigarren puntua), zeinaren bidez modernizazio eta produktibitate funts bat gaitzen baita oinarrizko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata masaren ehuneko 0,6ri dagokiona, bat eginez Euskadiko Udalen Elkarreak (EUDEL) 2015eko abenduaren 10ean UDALHITZ negoziazio kolektiboa dela-eta egindako gomendioarekin. Prozedura horretan interesa duten guztiak epatzen dira, baldin eta beren interesei komeni bazaie, errekurtsio horretan aurkeztu ahal daitezen, bederatzi eguneko epean iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bai eta errekurtsoko alderdi gisa jardun daitezen ere.

Armiñon, 2016ko irailaren 7a

Alkatea

JUAN MUÑOZ BARTOLOME